

**PROGRAM4**

**2016/11/24**

**NB&**

**NEK4NE B4LLUERK4**

**MIKEL G4RMENDI4**

**IV4N IG4RTU4**

**P4TXI JU4RISTI**

**4GUSTIN ERKIZI4**

**JON Z4R4TE**

**M4RI4 4R4C&LI G4RIN**

**M4RT4 B4R4NDI4R4N**

**4RTURO MUG4**

**JOSE LUIS M4RTIN**

**TX&LO RUIZ**

**IDOI4 FERN4NDEZ**

**INM4CUL4D4 GERRIK4GOITI4**

**LOR& BILB4O**

# PROGRAMA

## NEKANE BALLUERKA,

### UPV/EHUko ERREKTORE IZATEKO HAUTAGAIA



<b>1. SARRERA</b> .....	3
<b>2. IKASTEKO UNIBERTSITATEA:</b> ikasleak dira gure izateko arrazoia .....	6
<b>3. UNIBERTSITATE IKERTZAILEA:</b> ezagutza sortzea eta gizartera nahiz ingurune ekonomikora transferitzea .....	9
<b>4. IRAKASKUNTZAREKIN KONPROMETITURIKO UNIBERTSITATEA:</b> irakaskuntza jardueraren aitorten soziala .....	12
<b>5. AUKERA PROFESIONALAK ESKAINTZEN DITUEN UNIBERTSITATEA:</b> pertsonek osatutako unibertsitatea eta pertsonak jomugatzat dituen .....	15
<b>6. BIZIKIDETZARAKO UNIBERTSITATEA:</b> unibertsitateko kideen bizitzaren kalitatea hobetzea .....	18
<b>7. GURE INGURUNEAN ERROTUTAKO UNIBERTSITATEA:</b> euskal gizarte eta kulturarekiko konpromisoa .....	20
<b>8. MUNDUARI IREKITAKO UNIBERTSITATEA:</b> nazioartekotasuna unibertsitateko jarduneko eremu guztietan sartzeari .....	23
<b>9. GIZARTEAREKIN KONPROMETITURIKO UNIBERTSITATEA:</b> benetako zerbitzu publikoa .....	26
<b>10. GOBERNU ONA SUSTATZEN DUEN UNIBERTSITATEA:</b> unibertsitate hurbilekoa eta adeitsua, gobernu partizipatiboa, eraginkorra eta gardena duena .....	29

# GEROA, DENON ARTEAN

## NUESTRO FUTURO, AHORA

36 urteko ibilbidean, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) helduarora iritsi da, eta gure ingurunean ez ezik, nazioartean ere begirune osoa duen unibertsitatea izatea lortu du.

UPV/EHUK 300.000 ikasletik gora prestatu ditu; Europako estandarretara egokitu du prestakuntza eskaintza; nabarmenki aurrera egin du ikerketan, eta euskal gizartearen konfiantza lortu du.

Nolanahi ere, gaur egungo krisi ekonomikoak eta legezko marko egonkorrik ezak baldintzatu egin dute ezarrita genituen zenbait helburu lortu ahal izatea. Edonola ere, unibertsitateak gai izan behar du zailtasuneko egoerei aurre egiteko, eta, ildo horretan, gure asmoa da irmotasunez aurrera egitea eta helburuak betetzea, bai UPV/EHUren Plan Estrategikoan ezarritakoak, bai programa honetan proposatutakoak.

Era berean, funtsezkoa iruditzen zaigu hurrengo Unibertsitate Plana (2018-2021) berritzeko eta finantzaketa esparru egonkorra lortzeko beharrezkoak diren lankidetzak oinarriak ezartzea. Horretarako, Euskal Unibertsitate Sistemaren Lege berri bat defendatuko dugu, zeinak, finantzaketa eredian eragina izateaz gain, aukera emango digun autonomia handiagoa izateko zenbait alderditan, hala nola irakasle eta ikertzaileen nahiz administrazio eta zerbitzuetako langileen kontratazioan edo gobernantza eredian. Eusko Legebiltzarrean horren gaineko adostasun zabala lortzea nahi genuke, eta erabat prest gaude ildo horretan lan egiteko.

Gure hautagaitzak aitortzen du gaurdaino lan handia egin dela, baina garai berri bati hasiera eman nahi diogu, proiektu eta ideia berriak aurkeztuz, UPV/EHUK aurrean dituen erronka handiei guztion artean aurre egin ahal izateko. Hori dela eta, **"Nuestro futuro, ahora/Geroa, denon artean"** leloak gure konpromisoa laburbiltzen du.

Gure unibertsitateak munduko onenen maila lortzea nahi dugulako, eta Euskadin ezagutza sortzeko eragile nagusi gisa duen lidergoa sendotzea, eta ekarpen erabakigarria egitea euskal gizartearen garapenari eta ongizateari. Horrez gainera, gure ikasleentzat unibertsitatean ikastea balio handiko prestakuntza esperientzia izatea lortu nahi dugu, eta esperientzia horretatik ikasleak prest ateratzea oraingo zein geroko erronkei aurre egiteko, barneratuta dituztela gaitasun teknikoa, oinarri etiko-humanista sendoa eta gizarte erantzukizuna.

Beharrezkoa delako irakasle eta ikertzaileok eta administrazio eta zerbitzuetako langileok garapen pertsonal, intelektual eta profesionaleko itxaropenak ase ahal izatea, konfiantza eta errespetua guztiontzat funtsezko balioak diren ingurune batean. Enplegu egonkorra eta kalitatezkoa lortu nahi dugu, norbanakoak zein unibertsitatea bera indartuta atera daitezen.

Gure proiektuan honelako euskal unibertsitate publikoa lortu nahi dugulako: euskara sustatzen duen unibertsitatea, eta nazioartean aitortua; berezko hezkuntza eredu duena; erreferentea ikerketaren alorrean; kultura katalizatzailea eta herrialdearen eragile sozioekonomikoa; gobernantza garden, arduratsu eta hurbila duena; eta, ororen gainetik, gizarte demokratiko eta irekiek ezaugarritzat dituzten balioak sustatuko dituen, hots, bakea, ekitatea, inklusioa eta jasangarritasuna.

**"Nuestro futuro, ahora/Geroa, denon artean"**, UPV/EHU Europako unibertsitate entzutetsuenekin parekatuko duen kudeaketa eredu bat bultzatzeko ilusioz gatzelako.

Aurreko guztia lortzeko, erronka hauek proposatu dizkiogu geure buruari:

### **Ikasteko unibertsitatea: ikasleak dira gure izateko arrazoia.**

Hori dela eta, kalitatezko prestakuntza jaso dezaten nahi dugu, eta unibertsitatean ikasteak, bizi esperientzia aberasgarria izateaz gain, gaitu ditzala gizarteko eskariei egokiro erantzuteko eta etikaz nahiz sormenez jokatzeko aldakorra eta gero eta zorrotzagoa den ingurunean. Halaber, ikasleei enplegarritasuna sustatuko duten ezagutzak eta gaitasunak eskaintzea da gure kezka nagusietako bat. Horretarako, ezinbestekoa da ikasleek unibertsitateko jarduera guztietan parte hartu ahal izateko bideak ezartzea.

### **Unibertsitate ikertzailea: ezagutza sortzea eta gizartera nahiz ingurune ekonomikora transferitzea.**

UPV/EHU Euskadiko eragile ikertzaile nagusia da. Sendotu egin nahi dugu lidergo hori, ikerketa egiturak babesteko politikak aplikatuz, baina, aldi berean, egitura horiek jakintza eremu bakoitzaren beharretara egokituz. Era berean, apustu irmoa egin nahi dugu doktorego tesia gauzatzen ari diren ikertzaileen eta ikertzaile berrien formakuntzaren alde, harrobia bermatuta gera dadin. Era berean, irakasle eta ikertzaileak kontratatzeke autonomia eta magultasuna areagotzearen alde egingo dugu.

Gainera, UPV/EHUK ezagutzaren transferentziarako eragile nagusi gisa duen lidergoa indartu nahi dugu, beste ikerketa erakunde batzuen eta Euskadiko beste eragile sozio-ekonomiko batzuen gaitasun zientifiko-teknologikoak txertatuz sormenezko jarrerarekin.

### **Irakaskuntzarekin konprometituriko unibertsitatea: irakaskuntza jardueraren aitorpen soziala.**

Une honetan, prestakuntza eskaintza ona lortzeko, ezinbestekoa da graduen eta graduondokoen arteko zubiak eraikiko dituen estrategia bat ezartzea, ikasleek aukera izan dezaten prestakuntza ibilbide koherenteak baina anitzak egiteko. Horretarako, lidergo partekatua sustatu behar dugu, non unibertsitateko ikastegiak arduratuko diren tituluak planifikatu, garatu eta kudeatzeaz. Hori dela eta, graduak ez ezik, masterrak ere ikastegiek kudea ditzaten proposatzen dugu. Hitzematen dugu kudeaketa horretan lagunduko dugula, ikastegien autonomia babestuz, gainera.

Era berean, irakaskuntzako eta ikerketako zereginak modu orekuan barneratuko dituen eredu profesional akademikoa sustatu nahi dugu, horrek eragin positiboa izango baitu ikasleek jasoko duten prestakuntzaren kalitatean.

### **Aukera profesionalak eskaintzen dituen unibertsitatea: pertsonak osatutako unibertsitatea eta pertsonak jomugatzat dituen.**

Soilik irakasle eta ikertzaileek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek prestakuntza eta motibazio handiak badituzte lortuko dugu bikaintasuna irakaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan. Horregatik, bi talde horien ibilbide profesionalaren garapena eta promozioa babestuko ditugu, eta enplegu egonkor eta kalitatezkoaren aldeko apustua egingo dugu. Era berean, talentua erakartzeko eta zaintzeko ahaleginak egingo ditugu gardentasunezko esparru batean, iritsi berriek aukera izan dezaten gure unibertsitatean sartu eta euren ibilbidea garatzeko, eta belaunaldi berria bermatuta gera dadin.

### **Bizikidetzarako unibertsitatea: unibertsitateko kideen bizitzaren kalitatea hobetzea.**

Campusak unibertsitateko kideen ongizatea erraztuko duten bizikidetza espazioak izatea lortu nahi dugu. Helburu hori erdiesteko, pertsona ororen premia akademikoak, premia kulturei eta kirol premiei erantzungo dieten instalazioak eta zerbitzuak eduki behar ditugu.

Arlo honetan, geure zereginaren ardatza zera izango da, hobetu beharreko espazioak egokituz joatea eta, batik bat, Medikuntza eta Erizaintzako Fakultate berria eraikitzeke proiektua gauzatzea. Halaber, lurralde bakoitzeko beharrekin bat datozen prestakuntza eskaintzak sustatuko ditugu.

### **Gure ingurunean errotutako unibertsitatea: euskal gizarte eta kulturarekiko konpromisoa.**

UPV/EHU kultura katalizatzaile garrantzitsu bat da, eta eredia, normalizazio linguistikoan. Euskararen erabilera unibertsitateko bizitzako eremu guztietan normaldu nahi dugu, eta gure unibertsitateak Euskadiko garapen kulturean betetzen duen zeregina indartu. Horrez gainera, konpromisoa hartzen dugu graduako eta graduondoko euskarazko irakaskuntza eskaintza sustatzeko.

**Munduari irekitako unibertsitatea: nazioartekotasuna unibertsitateko jarduneko eremu guztietan sartzea.**

Munduko unibertsitate onenen maila lortu nahi badugu, nazioartekotasunak presente egon behar du unibertsitateko jarduera guztietan. Gure unibertsitatearen nazioarteko hedapena indartu nahi dugu prestakuntzaren, ikerketaren eta kudeaketaren arloetan, gure posizioa nabarmenki hobetu dadin nazioarteko sailkapenetan. Horrez gainera, unibertsitateko talde guztien nazioarteko mugikortasuna areagotu nahi dugu, baita haien gaitasun linguistikoen prestakuntza eta egiaztapena sustatu ere. Alderdi honetan, arreta berezia eskainiko diegu Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusak ematen dizkigun aukerei.

**Gizartearekin konprometituriko unibertsitatea: benetako zerbitzu publikoa.**

Oroz gain, UPV/EHU unibertsitate publiko bat da, eta, hortaz, inklusioaren, ekitatearen eta jasangarritasunaren balioak sustatu behar ditu. Irakaskuntzako, ikerketako eta kudeaketako jardun arduratsua garatu nahi dugu, eta aintzat hartzen dituen garapen jasangarriko helburuak, hala nola genero berdintasuna eta garapenerako lankidetzak. Gure aburuz, unibertsitateak potentziala du gizarte konpromisoaren eremuan erreferentziatzeko eredu bilakatzeko.

**Gobernu ona sustatzen duen unibertsitatea: unibertsitate hurbilekoa eta adeitsua, gobernu partizipatiboa, eraginkorra eta gardena duena.**

Gure unibertsitatearen erronka handietako bat gobernantza eredua berriro definitzea da. Gure helburua da gastuan eraginkortasuna eta eragingarritasuna hobetzea eta burokrazia gutxiagoko administrazio kudeaketa arinagoa, hurbilagoa eta gardenagoa sustatzea. Erakundean taldeen arteko komunikazioa eta harremanak erraztuko dituen giroa sortzen saiatuko gara, eta talde horiek gobernantzako estrategietan parte hartzea bultzatuko dugu. Zalantzarik gabe, neurri horrek hobetu egingo du pertsonen ongizatea, eta UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartuko du.

# IKASTEKO UNIBERTSITATEA:

*ikasleak dira gure izateko arrazoia*

## ERRONKA

**Graduko eta graduondoko eskaintza eleaniztuna, jasagarria eta kalitate egiaztatukoa sustatzea, euskal gizartearen premiei erantzungo diena**

HELBURUAK	EKINTZAK
Dagoeneko eskaintzen diren tituluak hobetzea eta titulu berritzaileak eta erakargarriak sortzea, gizarteko eragileen eta ikasleen partaidetzarekin.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Graduetako curriculumen hobekuntza sustatzeko ehundu programaren fase berri bat diseinatzea, abian jarri zenetik gaurdaino izandako emaitzak abiapuntutzat hartuta.</li> <li>Egungo prestakuntza eskaintza euskal gizartearen premietara egokitu dadin sustatzea, titulu berriak eta erakargarriak sortuz hainbat arlotan, hala nola Ingeniaritza Biomedikoa Bizkaian, Robotika Gipuzkoan edo Automobilgintza Araban.</li> <li>Hainbat ikastegi edo/eta tituluren arteko lankidetzak sustatzea, titulu bikoitzak garatzeko.</li> <li>Online irakaskuntza duten taldeen ezarpen esperimentalak abiaraztea, Hezkuntzaren arloko irakasgaiekin hasita.</li> </ul>
Graduondoko eskaintza gero eta eskari zein interes handiagoa duten arloetara bideratzen laguntzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Graduondoko Ikasketen Plan Estrategikoa ezartzea hiru ardatzetan: Prestakuntza-lkerketa, Lurraldearekiko lotura eta Nazioartekotzea.</li> <li>Egin beharreko izapide guztiak egitea, UEU (Udako Euskal Unibertsitatea) UPV/EHUri atxikitako zentroa izan dadin eta "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza" izeneko masterra eskaini dezan, modalitate ez-presentzian eta euskaraz.</li> </ul>
Inguruko premiei erantzungo dien prestakuntza etengabeko eskaintza sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Prestakuntza etengabeko politika espezifikoak diseinatzea, gizarteko erakundeekin eta enpresekin lankidetzan.</li> <li>Prestakuntza erdipresentziala edo birtuala sustatzea, bateragarria izan dadin lan jardunaldiarekin.</li> <li>Euskadi-Akitania ardatzeko beste unibertsitate batzuekin aliantzak ezartzea, etengabeko prestakuntzako eskaintza partekatua garatzeko.</li> <li>Esperientzia Gela eskaintza sozio-hezitzailea sendotzea.</li> <li>Etengabeko Prestakuntzako Zuzendaritza sortzea.</li> </ul>

**ERRONKA**

**UPV/EHUren berezko hezkuntza ereduaren garapenean sakontzea**

<b>HELBURUAK</b>	<b>EKINTZAK</b>
<p><b>Sormena bultzatzen duten ikaskuntza egoera berrien garapena sustatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza programetan diziplinartekotasuna sustatzea, ikasleen curriculum interesei erantzutea ahalbidetuko duten eredu ireki eta malguagoak eskainiz.</li> <li>• IKD GAZtE programa Arabako eta Bizkaiko Campusetara zabaltzea, hainbat titulutako ikasleen arteko elkarlana errazteko.</li> <li>• Urtero antolatzea graduako zein graduondoko ikasleek euren kalitateagatik eta izaera berritzaileagatik garrantzitsuenak izan diren gradu amaierako lanak eta master amaierako lanak aurkeztu ahal izateko biltzarrak.</li> </ul>
<p><b>Graduko zein graduondoko ikasleen artean eragin handiko ikaskuntzen aukerak areagotzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaitasun zientifiko eta profesionalen garapena bermatuko duten ikaskuntza metodologia aktiboen erabilera egonkortzea.</li> <li>• UPV/EHUko erakunde, enpresa edo zerbitzu espezializatueta kualifikazio handiko praktikak egiten dituzten ikasleen kopurua handitzea.</li> <li>• Gradu amaierako lanak, master amaierako lanak eta doktorego tesiak inguruko hainbat erakunde eta enpresatan egiten dituzten ikasleen kopurua handitzea.</li> </ul>
<p><b>Kalitatezko ikaskuntzari mesede egingo dioten berrikuntzako esperientziak garatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen deialdiaren baitan ikasleentzako modalitate espezifiko bat ezartzea, metodologia berriak probatzeko.</li> <li>• ehuPortfolio elektronikoa ezartzea, ikasleek aukera izan dezaten euren prestakuntza ibilbideak erregistratzeko eta ikusgai jartzeko.</li> </ul>

**ERRONKA**

**Ikasleen enplegagarritasuna bultzatuko duten baldintzak sortzea**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Graduetan eta graduondokoetan enplegagarritasunari lotutako zeharkako gaitasunak gara daitezen sustatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasleen prestakuntza praktikoa hobetzeko eta enplegagarritasuna sustatzeko asmoz, gradu zein graduondokoetan prestakuntza duala (txandakatzean oinarritua) ezartzea, Automobilgintzako Ingeniaritza graduan (Gasteizko Ingeniaritza Eskolan) eta Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduan (Ekonomia eta Enpresa Fakultatean) hasita.</li> <li>• UPV/EHUko ikasle guztientzat komunak izango diren zeharkako gaitasunen katalogoa diseinatzea.</li> <li>• Berdinen arteko ikaskuntzarako mekanismoak ezartzea, zeharkako gaitasunak garatzeko.</li> <li>• Ikasleen eskura jartzea prestakuntza osagarria, aurrez aurrekoa edo online, haien prestakuntza premietara egokitua (teknologia berriak, testu profesionalen idazketa, artikuluko zientifikoaren idazketa, bititza aktiborako iragatea, ahozko komunikazioa, lan elkarrizketak, hizkuntza gaitasunak, etab.).</li> </ul>
<p><b>Unibertsitateko kide guztien artean kultura ekintzailea sortzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• UPV/EHUK ekintzaitzaren arloan eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutzera ematea ikasleen artean eta irakasle eta ikertzaileen artean.</li> <li>• Ekintzaitza sustatzeko sariak eta ekimenak bultzatzea hiru campusetan (Think Big, B-Cubes..).</li> <li>• Gaur egun abian dauden junior enpresak mantentzea eta urtero horrelako bat sortzea, hainbat mekanismo erabiliz, hala nola 4. ZITEK enpresa haztegi Sarrikon.</li> </ul>
<p><b>Egresatuen laneratzea sustatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Urtero UPV/EHUren enplegu azoka antolatzea.</li> <li>• Enplegu guneen jarduera babestea eta optimizatzea, kudeatutako lan eskaintzen kalitatea eta kopurua hobetuz.</li> <li>• UPV/EHU praktiken unitate bat sortzea, ikastegiei curriculumeko nahiz curriculumaz kanpoko kanpo praktikak kudeatzen lagunduko diena.</li> </ul>



# UNIBERTSITATE IKERTZAILEA:

*ezagutza sortzea eta gizartera nahiz ingurune ekonomikora transferitzea*

## ERRONKA

**Ikertzaile berriei eta prestatzen ari direnei laguntza ematea eta ikertzeko kultura sustatzea**

HELBURUAK	EKINTZAK
UPV/EHUn doktorego tesi gehiago defendatzea eta horien kalitatea areagotzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Zabalduz programari jarraipen emateko, hainbat erakunderekin lankidetzan gauzatzeko doktoregoetarako deialdiak diseinatzea, batera finantzatuak.</li><li>• Prestakuntza prozesuan dauden ikertzaileentzako prestakuntza eskaintza sustatzea.</li><li>• Urtean 500 doktorego tesi egitea, horietatik 200 nazioartekoak izanik, eta euskaraz egindako nazioarteko tesien kopurua areagotzea.</li></ul>
Ikertzaile berriei laguntzea, belaunaldi aldaketa egokia bermatzeko.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ikertzaile berriek ikerketa proiektuetako lidergoa lortzeko aukera izan dezaten sustatzea.</li><li>• Ikerketa taldeei laguntza ematea, ikertzaile berriak har ditzaten.</li></ul>
Ikertzeko kultura sustatzea tradizio ikertzaile txikiko arloetan.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ikerketa talde berrien sorrera sustatzea tradizio ikertzaile txikiko arloetan.</li><li>• Berriak ez diren doktoreak ikerketa talde egonkortuetan edo sortuberrietan sartzeko pizgarriak ezartzea.</li><li>• Doktore ez diren irakasleei doktorego tesiak egiteko laguntza ematea, irakats betebeharra murrizteko programa sustatuz.</li></ul>

**ERRONKA**

**Ikerketa diziplina anitzekoa eta mugakoa sustatzea, jarduera zientifikoaren eta teknologikoaren nazioartekotzea areagotuko duena**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Ikerketa jakintza adar bakoitzaren premien eta egoeraren arabera indartzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Taldeen I+G+Bren kalitatea monitorizatzea, haien jasangarritasunerako eta bideragarritasunerako.</li> <li>• Ikerketa intentsitate txikiko arloetarako prestakuntza eskaintza sustatzea.</li> <li>• Azpiegiturak, laguntzaileak eta baliabide bibliografikoak ikertzaileen premietara egokitzea.</li> <li>• Jakintza arlo guztietako jarduera ikertzailea babestuko duten ikerketako hiru zuzendaritza sortzea.</li> </ul>
<p><b>Ikerketa taldeen arteko lankidetzak eta jakintza fluxua bultzatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jakintza arlo desberdinetako ikerketa taldeen artean komunikatzeko mekanismoak sortzea, lankidetzak sustatzeko.</li> <li>• Taldeen arteko lankidetzak sustatzea, garrantzi handiko baterako proposamenak lantzeko.</li> <li>• Nazioarteko ikerketa taldeekiko lankidetzak sustatzea, lankidetzak hori mesedetuko duten deialdien bidez.</li> </ul>
<p><b>Nazioartean erreferentziazkoak diren argitalpenen kopurua handitzea jakintza adar guztietan.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Nazioartean erreferentziazkoak diren artikuluen argitalpena sustatzeko mekanismoak ezartzea (adib., konpromiso dokumentuak), jakintza adar bakoitzaren egoera aintzat hartuta.</li> <li>• Ikertzaileen ekoizpen zientifikoa aztertzea, askotan aipatzen dituzten pertsona (Highly Cited Persons) izan daitezkeenak antzemateko eta horiei laguntzeko.</li> <li>• Talde sortuberriari babes handiagoa ematea, sorrerako eta aurkezpeneko hasierako faseetan laguntzeko politiken bidez.</li> </ul>

**ERRONKA**

**UPV/EHUk jakintza sortzeko eta transferitzeko eragile gisa eta euskal gizartearekin lankidetzan aritzeko eragile gisa duen lidergoa indartzea, lehiakortasuna eta gizarte garapena hobetzeko**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Lurraldearekin lankidetzan aritzeko kultura sustatuko duen erakunde irekia eta berritzailea izatea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Beharrezko onura fiskalak izango dituen mezenasgoko eta dohaintzako prozedura erraz, ageriko eta eraginkor baten bidez herritarrek, enpresek edo erakundeek proiektu zientifiko espezifikoen garapenean ekonomikoki lagundu ahal izateko estrategia bat diseinatzea eta horretarako beharrezko azpiegitura sortzea.</li> <li>UPV/EHUko Parke Zientifikoaren hazkuntza sustatzea, plataforma zientifiko-teknologikoak hedatuz, lankidetzan gauzatutako ikerketa proiektuak sustatuz eta oinarri teknologikoko enpresak finkatuz.</li> <li>Ikerguneekin, erakundeekin, enpresekin eta bestelako gizarte eragileekin epe luzerako lankidetzak ezartzeko esparruak eta tresnak diseinatzea.</li> <li>Gure ikertzaileak inguruko enpresa eta erakundeetara eta profesionalak gure unibertsitatera mugitzeko programa bat sortzea.</li> </ul>
<p><b>Erreferentziazko eragile izatea Euskal Herria sozioekonomikoki eraldatzeko hazkunde adimendun eta jasangarrian.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Enpresei, erakundeei eta oro har gizarteari bideratutako komunikazio jarduerak garatzea, I+G+Bren ahalmenak eta emaitzak ezagutzera emateko.</li> <li>Ikerketako eta berrikuntzako politika eta praktika arduratsuak diseinatzea eta ezartzea.</li> <li>Egitura zientifiko eta teknologiko berriak sortzea, bai Nazioarteko Bikaintasun Campusaren eta Euskadiko RIS3 estrategiaren eremuetan bai kanpoko laguntza duten beste arlo batzuetan, ekimen arrakastatsuen ereduari jarraituz, hala nola Plentziako Itsas Estazioaren ereduari edo Aeronautikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroaren ereduari.</li> </ul>
<p><b>Egitura sozioekonomikora hurbiltzea UPV/EHUko jakintza eta gaitasun zientifiko-teknologikoak.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>UPV/EHUren eta enpresen arteko lankidetzak sustatzea Europako partentariatuaren, baita ekimen handietako partaidetza ere (Horizon 2020, Egitura Funtzak 2014-20, Knowledge Innovation Communities-KIC...), horrelakoetan jasotako emaitza % 25 handitzeko.</li> <li>Ikerketa taldeei eskaintza teknologikoa merkaturatzen laguntzea, enpresekiko kontratuak eta patenteen nahiz software erregistroen lizentziamentua areagotzeko.</li> <li>Komunikazio zientifikoko programak sustatzea, hainbat egitura eta ekitaldiren bidez: Kultura Zientifikoko Katedra, Zientziaren Astea, gazteak laborategietan...</li> </ul>

# IRAKASKUNTZAREKIN KONPROMETITURIKO UNIBERTSITATEA:

*irakaskuntza jardueraren aitortzen soziala*

## ERRONKA

Irakaskuntza eta ikerketa modu orekatuan bilduko dituen eredu akademikoa sustatzea

HELBURUAK	EKINTZAK
Unibertsitateko kideek eta euskal gizarteak irakaskuntzaren kalitateari garrantzi handiagoa eman diezaioten lortzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Garapen akademiko profesionaleko estrategiak indartzea.</li><li>• UPV/EHUko irakasle onenek irakasleak prestatzeko programetan esku har dezaten lortzea.</li><li>• Kalitatezko irakaskuntzari prestigioa ematea, aintzatespen publikoaren bidez.</li><li>• Irakasleen irakats kalitateari buruzko emaitzak ezagutzera ematea euskal gizartearen.</li></ul>
Irakaskuntza jarduera ebaluatzeko programen erabilera normaltzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ebaluazio prozedurak mailakatzea, irakaskuntzaren garapenean gaindi daitezkeen mugarriak ezartzeko.</li><li>• Docentiaz programa kanpotik egiaztatzea.</li></ul>

**ERRONKA**

**Ikastegiek graduen eta graduondokoen kudeaketan protagonismoa izan dezaten laguntzea**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Antolakuntzako eredu berria diseinatzea, non ikastegiak arduratuko diren masterrak kudeatzeaz, eta Doktorego Eskola sortzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tituluen kudeaketa berrantolatzea, ikastegi bakoitzak prestakuntza eskaintza koherentea eta sendoa izan dezan.</li> <li>• Doktorego Eskola sortzea eta hertsiki lotzea ikerketarekin.</li> <li>• Kudeaketa taldeen barruan (IIL, AZP) elkarlana babestea eta ikasleen ahotsa txertatzea tituluak aztertzeke eta horiei buruzko erabakiak hartzeke prozesuetan.</li> </ul>
<p><b>Tituluen eta ikastegien kalitatearen kudeaketan lidergo partekatua indartzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tituluek eta ikastegiek egiaztapen instituzionala lor dezaten laguntzea.</li> <li>• Zuzendaritza taldeei (dekanotza/zuzendaritza taldeak eta sailak) kudeaketa aurreratuko ereduari buruzko prestakuntza ematea.</li> <li>• Ikastegietako kalitate batzordeek erabaki instituzional estrategikoak hartu eta garatzeko garaian duten eginkizuna indartzea.</li> </ul>
<p><b>Sinergian eta joera partekatuetan (komunikazioa, elkarrekiko aitorpena eta ilusioa) oinarritutako antolakuntza kultura sustatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastegi bakoitzeko barne kohesioa eta identifikazioa sustatzea.</li> <li>• Sailen eta dekanotza/zuzendaritza taldeen arteko aliantzak sustatzea eta babestea.</li> <li>• Ikastegietako barne dinamika babestea eta indartzea (ehundu programa).</li> </ul>

**ERRONKA**

**Gizarteak UPV/EHUko prestakuntzaren kalitateari buruz duen iritzia hobetzea**

<b>HELBURUAK</b>	<b>EKINTZAK</b>
<p><b>Prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa erraztea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanbide Heziketako eta Batxilergoko sareekiko harremanak sendotzea.</li> <li>• Eskaintza akademikoa ezagutzera ematea, ikasleek aukera izan dezaten prestakuntza ibilbideak diseinatzeko (gradua, graduondokoa eta etengabeko prestakuntza).</li> <li>• Eskaintza akademikoa ezagutzera ematea euskal diasporan.</li> </ul>
<p><b>UPV/EHUk bere inguruneari egiten dion ekarpena ezagutzera ematea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• UPV/EHUko profesionalen presentzia areagotzea komunikabideetan.</li> <li>• Zientziak gizartean duen dibulgazioa areagotzea.</li> <li>• Gizarte eragileekin eta komunikabideekin aldiakako topaketak egitea, prestakuntza jarduera berritzaileak hedatzeko.</li> <li>• Prestakuntzako jardunbide egokien katalogo bat sortzea jakintza adar bakoitzean.</li> </ul>
<p><b>Tokiko zein nazioarteko esparruetan UPV/EHUren irakaskuntza jarduera berritzailea ikusaraztea eta zabaltzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Harremanak sendotzea beste unibertsitate publiko batzuekin, batik bat komunikazio hizkuntza gisa euskara darabiltenekin, irakaskuntza-ikaskuntzako esperientzia berritzaileak partekatzeko.</li> <li>• Nazioarteko inguruneetan lan egiten duten hezkuntza berrikuntzako espezialisten talde gehiago sortzea.</li> </ul>

# AUKERA PROFESIONALAK

## ESKAITZEN DITUEN UNIBERTSITATEA:

*pertsonak osatutako unibertsitatea eta pertsonak jomugatzat dituena*

### ERRONKA

Irakasle eta ikertzaile prestatuak eta motibatuak izatearen aldeko apustua egitea

HELBURUAK	EKINTZAK
Ibilbide akademikoaren garapena eta promozioa babestea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Irakasle eta ikertzaileen promozioa errazteko prestakuntza jarduerak garatzea.</li><li>• Irakasle eta ikertzaileei euren kontratazioarekin eta promozioarekin lotutako eskabideen eta izapideen (egiaztapena, seiurtekoak...) kudeaketan laguntzeko unitate bat sortzea, jakintza arloetako bakoitzean espezializatutako langileak izango dituena.</li><li>• Osasuneko Itunaren esparruan lan egitea, irakasle klinikoaren kontratazioari eta promozioari aurre egiteko formulak lortu ahal izateko.</li></ul>
Irakasle eta ikertzaileen belaunaldi aldaketa egokia bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Prestakuntza orokorreko programa bat ezartzea (irakaskuntzakoa, ikerketakoa eta kudeaketakoa), lagungarria izango dena irakasle eta ikertzaile berriak egiaztatzekeo prozesuan.</li><li>• Sailetan txertatutako tutoretza estrategiak finkatzea, irakasle berriei aholkua eta babesa emateko euren ibilbide akademikoaren diseinuan eta garapenean.</li></ul>
Gardentasunezko esparru batean talentua zaintzea eta hori erakartzea bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Bertako zein nazioarteko talentua zaintzeko eta hori erakartzeko plan bat diseinatzea, hurrengo Unibertsitate Planean urtean 5 ikertzaile kontratatzekeo partida bat txertatuz.</li><li>• Premia estrategikoak dituzten jakintza arloak identifikatzea eta bestelako kontratazio formulak aztertzea, talentua UPV/EHUko langile taldean sartzea errazteko.</li></ul>

**ERRONKA**

**Administrazio eta zerbitzuetako langile prestatuak eta motibatuak izatearen aldeko apustua egitea**

<b>HELBURUAK</b>	<b>EKINTZAK</b>
<p><b>Unibertsitatearen zereginarekin bat datorren ibilbide profesionala garatzeko baldintzak hobetzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Merezimenduetan eta gaitasunetan oinarritutako ibilbide profesionala sustatzea.</li> <li>• Langileak kudeatzeko irizpideak berrezartzea, argiagoak, ezin nahasizkoak eta publikoak izan daitezen.</li> <li>• Langile taldeak langileen kudeaketari begira duen gogobetetze maila ezagutzeko aukera emango duten mekanismoak ezartzea.</li> <li>• Lanpostuen balorazio prozesuak eta monografiaren eguneratzea bermatzea.</li> </ul>
<p><b>Kudeaketako egitura UPV/ EHUren egungo premietara egokitzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erreferentziako Langile Zerrenda eguneratzea eta 2014ko irailaren 17an sinatutako laneko bermeen hitzarmena garatzea.</li> <li>• % 10 handitzea AZPren kontratazioak irakaskuntzari eta ikerketari laguntzen dieten zerbitzuetan (laborategiko teknikari espezialistak, informatikako teknikariak, ikerketa proiektuen kudeaketarako teknikariak...).</li> <li>• Zerbitzu eginkizunei, funtzio esleipenari eta lan poltsei buruzko araudia aztertzea, prozesuak arintzeko eta haien gardentasuna bermatzeko.</li> <li>• Unibertsitateko zerbitzuen egitura oso-osorik berraztertzea eta zerbitzu horietara moldatutako antolakuntza modu eta kudeaketa prozedura berriak ezartzea.</li> </ul>
<p><b>AZPri laguntza ematea ibilbide profesional osoan.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Langile berriei sarrera erraztuko dien harrera plan bat prestatzea.</li> <li>• AZP Kudeatzeko Plana prestatzea.</li> <li>• Prestakuntza Plana sendotzea eta prestakuntza espezifikoko programa bat ezartzea, administrazioaren desburokratizazioari heltzeko.</li> </ul>



**ERRONKA**

**Lanean kalitatearen hobekuntza sustatzea**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesuak aztertzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tartean diren eragile guztiekin egonkortze hitzarmen berria negoziatzea, egungo egoerarekin bat etorriko dena.</li> <li>• AZPren eta irakasle eta ikerlarien egonkortasuna hobetzea, programa kontratuaren bidez finantzatutako postuak eta kontratuak ohiko finantzaketara aldatuz eta horiei dagozkien plazak sortuz lanpostuen zerrendan.</li> <li>• Funtsean ikerketa proiektuekin lotuta dauden eta kanpo finantzaketa duten kontratuen egoera konpontzea, bai AZPren kasuan, bai irakasle eta ikertzaileen kasuan.</li> </ul>
<p><b>Pertsonen osasun fisikoan, mentalean eta sozialean eragin positiboa duten lan inguruneak sortzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Laneko jardunbide egokien kodea prestatzea eta zabaltea, arriskuak murriztea xedetzat izango duena.</li> <li>• Lanpostuetako baldintza fisikoak eta psikosozialak hobetzea.</li> <li>• Lana eta familiako bizitza bateratzea erraztuko duten neurri berriak hartzea.</li> <li>• Telelanaren ezarpenean aurrera egitea.</li> </ul>
<p><b>Irakasle eta ikertzaileen eta AZPren artean prestakuntza partekatua sustatzea eta garatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• AZPrenzako eta irakasle eta ikerlariarentzako prestakuntza katalogoa diseinatzea.</li> <li>• AZPren eta irakasle eta ikerlarien prestakuntza partekatuari buruzko araudia prestatzea.</li> <li>• Laneko arriskuen prebentzioaren arloko prestakuntza eta informazioa sustatzea.</li> </ul>

# BIZIKIDETZARAKO UNIBERTSITATEA:

*unibertsitateko kideen bizitzaren kalitatea hobetzea*

## ERRONKA

**Prestakuntzako eta ikerketako premia berriei erantzungo dieten azpiegiturak eta zerbitzuak ezartzea campusetan**

HELBURUAK	EKINTZAK
Azpiegiturak prestakuntzako eta ikerketako premia berrietara egokitzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Medikuntza eta Erizaintza Fakultate berria Basurtuko Unibertsitate Ospitalearen ondoan eraikitzeko proiektua sustatzea.</li><li>• Beste proiektu batzuk bultzatzea (esate baterako, Ingeniaritza Biomedikoko Zentro Aurreratua), inguruko erakunde eta eragileekin lankidetzan.</li><li>• Hurrengo Urte Anitzeko Inbertsio Planean hiru campusetarako proiektu berriak sartzeko, hala nola, Korta II eraikina, San Mameseko Polo Teknologikoaren eraikinak, Elurreta eraikinaren handitzea...</li><li>• Espazio eta instalazio guztietan bizigarritasun eta lan baldintzak hobetzea.</li></ul>
Unibertsitateko espazioen irisgarritasuna hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Irisgarritasun arazoak dituzten pertsonen elkarteekin harremanetan jartzea, zer premia dituzten ezagutzeko.</li><li>• Ekintza plan bat diseinatzea, irisgarritasun unibertsala eta autonomia pertsonala baldintzatzen dituzten arazoak konpontzeko, eta horretarako zenbait ekintza aurreikustea, besteak beste: kartelak braillez eta piktogramatan jartzea, campusen planoetan tifloteknologia erabiltzea edo entzunaretoetan begizta magnetikoko sistema eramangarriak (platinak) instalatzea pertsona gorrentzat.</li></ul>
Eskaintako zerbitzuen kalitatea hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Unibertsitateko liburutegietako zerbitzuen hobekuntzan aurrera egitea eta ikasteko gela orduetara zabaltzeko aukera aztertzea.</li><li>• Ikasle elkarteentzako erabilera komuneko espazioak eskaintzea campus guztietan.</li><li>• Azpikontrataturako zerbitzuek hitzartutako baldintzak betetzen dituztela eta unibertsitateko kideen premiei erantzuten dietela bermatzea.</li></ul>

**ERRONKA**

**Campusetako unibertsitate biziaren sustatzea**

<b>HELBURUAK</b>	<b>EKINTZAK</b>
<p><b>Bizi ohitura osasungarriak izateko lagungarriak diren ekimenak bultzatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inguruko erakundeekin lankidetzaren egonkorrerako esparruak bultzatzea, kirol eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa eskaintzeko.</li> <li>• Jantokien, kafetegien eta <i>vending</i> makinaren enpresa esleipendunekin elikagai ekologiko eta osasungarrien erabilera adostea.</li> </ul>
<p><b>Kultura eta kirola unibertsitateko bizitzan txertatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Inguruko kultura eragileekin eta erakunde publiko zein pribatuekin sinergiak areagotzea, kultura jarduerak sustatzeko.</li> <li>• Ikasleekin komunikatzeko bideak ezartzea, elkarrekin diseinatzeko kultur arloko eta kirol arloko politikak.</li> <li>• Hainbat jarduera edo ekitaldi berezi bultzatzea: lasterketa mistoa, Zuatza Abentur, estropada akademikoa, Zabalki, Tipi-Tapa...</li> <li>• UPV/EHUko Orkestra Sinfonikoaren sorrera bultzatzea.</li> </ul>
<p><b>Campus jasangarriko estrategia orokorra garatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakunde eskumendunekin lan egitea, Arabako Campusera eta Leioara tranbian iritsi ahal izateko.</li> <li>• Bidegorrien eraikuntza babestea eta bizikleta garraiobide alternatibo gisa erabil daitekeela ohartaraztea.</li> <li>• Garraio publikoen joan-etorrien iraupena murrizteko eta kostua txikitzeko formulak proposatzea erakundeei.</li> <li>• Autoa partekatzeko programa eta erabiltzaile askoko ibilgailuak aparkatzeko programak mantentzea eta sustatzea.</li> </ul>

# GURE INGURUNEAN ERROTUTAKO UNIBERTSITATEA:

*euskal gizarte eta kulturarekiko konpromisoa*

## ERRONKA

Irakaskuntza eskaintzaren euskalduntzean aurrera egitea

HELBURUAK	EKINTZAK
Euskarazko irakaskuntza eskaintza handitzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>Euskarazko nahitaezko irakasgaien eskaintzan aurrera egitea.</li><li>Euskarazko hautazko irakasgaien eskaintza sustatzea hizkuntza horretan hautazko irakasgai gutxi dituzten graduetan.</li><li>Hainbat masterrek euskarazko irakasgaiak parteka ditzaten erraztea, eskaintza handitzeko.</li><li>Euskarazko etengabeko prestakuntzaren eskaintza babestea.</li><li>Prestakuntzaren arloko beste eragile batzuekin hitzarmenak ezartzea, euskarazko eskaintza birtuala sustatzeko.</li></ul>
Bikaintasuna lortzea euskarazko irakaskuntzan.	<ul style="list-style-type: none"><li>Terminologia teknikoaren garapena sustatzea.</li><li>Unibertsitateko talde guztien komunikazio gaitasunak hobetzea ikastaro espezifikoaren bidez.</li><li>Euskarazko eskuliburuaren ekoizpena babestea.</li><li>Euskararen II. Plan Gidaria (2013-2017) ebaluatzea eta III. Plana prestatzea.</li></ul>

**ERRONKA**

**Euskararen erabileraren normalizazioa lortzea unibertsitate bizitzako eremu guztietan**

<b>HELBURUAK</b>	<b>EKINTZAK</b>
<p><b>Euskaraz arreta egokia ematea publikoarekin harreman zuzena duten lanpostuetan.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• AZP liberatzeko programetan lehentasuna ematea publikoarekin harreman zuzena duten lanpostuetako zerbitzua hobetzera bideratutakoei.</li> <li>• Administrazio eta zerbitzuetako langileek unibertsitateak erabilgarri dituen hizkuntza tresnak erabil ditzaten sustatzea.</li> </ul>
<p><b>Euskararen erabilera soziala sustatzea irakaskuntzako eta unibertsitate bizitzako eremuetan.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen erabileran eta presentzian indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea, kanpo ebaluaziorako prozesuen bidez.</li> <li>• Administrazioeko kontratazioek zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituztela bermatzea.</li> <li>• Aplikazio informatikoak bi hizkuntza ofizialetan garatuko direla bermatzea.</li> </ul>
<p><b>Euskarazko ekoizpen zientifikoa bultzatzea, baita haren hedapena eta dibulgazioa ere.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskarazko doktorego tesiak sustatzea, egungo kopurua % 30 handitu dadin, lehentasuna emanez, betiere, nazioartekoak ere badiren tesiei.</li> <li>• Eragin indizea duten aldizkarietan eta berrikusketa nahiz ebaluaziorako prozesu homologatuak dituzten aldizkarietan euskarazko artikulua argitaratzea sustatzea.</li> <li>• Euskara euskarri digitaletan (blogak, Wikipedia...) ager dadin bultzatzea.</li> <li>• Ekitaldi zientifikoetan euskararen presentzia sustatzea.</li> </ul>

**ERRONKA**

**UPV/EHUK Euskal Herriko garapen soziokulturean betetzen duen eginkizuna indartzea**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Euskal artearen eta kulturaren prestakuntza, ikerketan eta hedapenean erreferente izatea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal artearen eta kulturaren adierazpenen azterketarekin eta hedapen sozialarekin zerikusia duten jarduerak bultzatzea eta zabaltzea.</li> <li>• Prestakuntza eta ikerketa sustatzea euskal kulturaren adierazpenen arloan: ahozko tradizioa, literatura, artea, dantza, musika, kirola, etab.</li> <li>• Euskal kultura eta artea aztertzen duten zientzialarien taldea egituratzeko ekintzak eragitea, hala nola sare zientifikoaren sorrera, eta arreta berezia eskaintzea horien emaitzak nazioartean zabaltzeari.</li> </ul>
<p><b>UPV/EHUren identitatea ezagutzera ematea eta haren potentzial akademikoaren ikusgarritasuna eta hedapena hobetzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen eta euskal kulturaren murgiltzeko nazioarteko ikastaroak antolatzea.</li> <li>• Hedabideekin aldizkako bilerak antolatzea, UPV/EHU gaiztatzen diren jarduerak akademikoaren berri emateko gizaritari.</li> <li>• Euskal artea eta kultura aztertzeaz arduratzen diren nazioarteko beste erakunde eta entitate batzuekin lankidetzan aktiboan aritzea.</li> <li>• Doktore euskaldunei eta euskal diasporaren ikertzaile zein adituei buruzko informazioa bilduko duen aplikazio bat garatzea eta zabaltzea.</li> </ul>
<p><b>Gizarte eta kultura arloetako eragileekiko harremana indartzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Unibertsitatearen eta eragile soziokulturalen arteko topaguneak indartzea, bereziki ehuGune topagunea.</li> <li>• Gizarte Kontseiluarekin lankidetzan eragile ekonomiko zein sozialekin topaketa sektorialak sustatzea, hainbat gai landu ahal izateko, hala nola baterako ikerketa proiektuak eta praktikak inguruko enpresa nahiz gizarte erakundeetan egiteko aukerak.</li> <li>• Erakunde katedrei babesa ematea.</li> <li>• Euskal egitura sozial eta enpresarialaren zerbitzura jartzea UPV/EHUK nazioartean dituen harremanen sarea, batik bat Master eta Doktoregoen Latinoamerikako Sarea.</li> </ul>

# MUNDUARI IREKITAKO UNIBERTSITATEA:

*nazioartekotasuna unibertsitateko jarduerako eremu guztietan sartzea*

## ERRONKA

Gure unibertsitatearen nazioarteko hedapena indartzea prestakuntzaren, ikerketaren eta kudeaketaren arloetan

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Aliantza estrategikoak ezartzea, prestakuntzako, ikerketako, garapeneko eta berrikuntzako jardueretan lankidetzan aritzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>UPV/EHUren nazioartekotze mapa egitea eta, emailtzak aintzat hartuta, Nazioartekotze Plana diseinatzea eta garatzea unibertsitateko kideekin elkarlanean.</li> <li>UPV/EHUk Latinoamerikan duen presentzia sendotzea, lankidetzan jardunda unibertsitateekin eta goi mailako hezkuntzako erakundeekin. Zehazki, Master eta Doktoregoen Latinoamerikako Sarea finkatzea eta Ingeniaritza eta Arkitekturako eta Zientzietako adarretara zabaltzea.</li> <li>Nazioarteko Bikaintasun Campusa indartzea.</li> <li>Euskal Diaspora Akademikoaren proiektua garatzea.</li> </ul>
<p><b>Euroeskualdeko erakundeekin dugun lankidetzaz sendotzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Akitania-Euskadi-Nafarroa sarean dugun presentzia eta partaidetza indartzea.</li> <li>Bordeleko Unibertsitatearekin batera Mugaz Gaindiko Euroeskualdeko Campusa garatzea.</li> <li>Akitania-Euskadi-Nafarroa sareko unibertsitateekin batera lan egitea, aliantza partekatuak ezartzeko mugikortasunerako, tesien baterako tutoretzarako eta titulu bikoitzetarako.</li> </ul>
<p><b>Nazioarteko sailkapenetan hobetzeko aukerak identifikatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>UPV/EHUko jarduera akademikoa egokiro islatuko duten sailkapenak identifikatzea.</li> <li>UPV/EHUko datuen unitate bat sortzea eta bertan langile gaituak ezartzea, jarduera zientifiko-teknologikoa etengabe monitorizatzen, identifikatutako sailkapenetako adierazleak erabiliz.</li> <li>Hainbat erakunderekin lan egitea, gure ikerketa sustatzeko eta Shanghaiko sailkapenean 300-400. posizioa berreskuratzeko.</li> </ul>

**ERRONKA**

**Prestakuntzaren eta ikerketaren nazioartekotzea bultzatzea**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Gure prestakuntza eskaintzaren nazioartekotzea bultzatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Atzerriko hizkuntzatan dugun eskaintza akademikoa handitzea eta berrantolatzea, lau hilabeteko irakasgaien moduluak sortuz ikastegi bakoitzean gutxienez 30 kreditu eskaintzeko.</li> <li>• Ingelesezko eta hiru hizkuntzako graduen zein graduondokoen eskaintza handitzea, graduei dagokienez Hezkuntzako eta Ekonomia eta Enpresako arloetan hasita, eta graduondokoei dagokienez, berriz, jakintza adar guztietan.</li> <li>• Ikasleei profesionalki hainbat herrialdetan jarduteko prestakuntza eskainiko dieten titulu bikoitzak eta baterako tituluak sustatzea nazioarteko bazkide estrategikoekin.</li> <li>• Ikasle atzerritarrei eta Iparraldeko ikasleei UPV/EHUn sartzeko erraztasunak ematea.</li> <li>• Mugikortasun birtuala sustatzea.</li> </ul>
<p><b>Unibertsitateko talde guztien hizkuntza gaitasunen prestakuntza eta egiaztapena sustatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza kulturantzuneko jarduerak antolatzea UPV/EHUko talde guztientzat.</li> <li>• Unibertsitateko ikasleei eta langileei erraztasunak ematea atzerriko hizkuntzen ikastaroetan eta egiaztapen probetan parte hartzeko.</li> <li>• Nazioarteko Sakontze Egiaztagiri bat martxan jartzea.</li> </ul>
<p><b>UPV/EHUren partaidetza eta lidergoa areagotzea Europako eta nazioarteko ikerketa proiektuetan.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• UPV/EHUko ikertzaileek europar proiektuak koordina ditzaten bultzatuko duten politika proaktiboak ezartzea.</li> <li>• Partzuergoetan eta bikaintasun sareetan parte hartzea sustatzea.</li> <li>• Europako Proiektuen Bulegoa indartzea, elkarlan hertsian jardunda Eusko Jaurlaritzako bulegoekin eta CRUEk Bruselan dituen bulegoekin.</li> </ul>



**ERRONKA**

**Unibertsitateko talde guztietan nazioarteko mugikortasuna sustatzea**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Europar eta Europaz kanpoko hainbat herrialdetan ikasteko eta praktikak egiteko mugikortasuna areagotzea eta dibertsifikatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Hitzarmenak sustatzea edo/eta sendotzea, funtsean lehentasunezko zat jotzen diren eremu geografikoetan.</li> <li>• <i>Study Abroad</i> programak antolatzea, bazkide diren unibertsitateekiko harremanak indartzeko, bereziki euskal ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateekiko harremanak.</li> <li>• <i>Staff Weeks</i> direlakoak antolatzea eta nazioarteko azoketara joatea.</li> </ul>
<p><b>Ikasle, AZP eta irakasle zein ikertzaileentzako mugikortasun programak finkatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Deialdi espezifikoaren bidez unibertsitateko talde guztien mugikortasuna babestea.</li> <li>• Mugikortasun programak kudeatzeko araudia egitea.</li> <li>• Egiturak eta zerbitzuak mugikortasun programa guztien kudeaketa premietara egokitzea.</li> </ul>
<p><b>Nazioarteko bisitariak etor daitezen sustatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasle nahiz irakasle eta ikertzaile bisitariari harrera egiteko zerbitzua hobetzea.</li> <li>• Ikasle bisitariak hartzeko <i>Buddy</i> programa finkatzea eta ikasle horientzako harrera eta orientazio saioak antolatzea.</li> <li>• Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak kudeatzea, baita lortutako maila egiaztatzen nahi dutenentzako azterketak ere.</li> </ul>

# GIZARTEAREKIN KONPROMETITURIKO UNIBERTSITATEA:

*benetako zerbitzu publikoa*

## ERRONKA

Unibertsitate inklusiboaren eredia garatzen laguntzea.

HELBURUAK	EKINTZAK
Ikasleen premien aniztasunari erantzutea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei ikasten hasi eta jarraitzeko erraztasunak ematea, hainbat laguntza motaren bidez.</li> <li>Kalteberatasun egoeran dauden ikasleak goi mailako hezkuntzan sartzeko proiektu pilotu bat ezartzea, arlo horretan eskumena duten erakundeekin lankidetzan.</li> <li>UPV/EHUk errefuxiatuei laguntzeko hartuak dituen konpromisoak garatzea.</li> <li>Espetxeratuta dauden pertsonen unibertsitate ikasketak egiteko dituzten aukerak areagotu eta hobetu daitezzen sustatzea.</li> </ul>
Unibertsitateko jardueran genero mainstreaminga/ zeharkakotasuna sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeen eta genero identitate desberdineko pertsonen ahalduntzea mesedetuko duten sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak sustatzea.</li> <li>Jakintza adar bakoitzeko ikastegi batean, gutxienez, genero ikuspegia (GI) aintzat hartzen duten aurrekontuen esperientzia pilotuak martxan jartzea.</li> <li>Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana ebaluatzea, eta III. Plana prestatzea.</li> <li>Berdintasunerako Sektorearteko Batzordearekiko lankidetzatza sendotzea eta genero zeharkakotasuna txartatzea gizarte eta lan harremanetan.</li> </ul>
Dibertsitate funtzionala duten ikasleei babesa bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza premia bereziak dituzten pertsonen laguntzea, bai unibertsitatean sartzen, bai ibilbide akademikoan zehar.</li> <li>Dibertsitate funtzionala duten ikasleak gizarteratzearen eragile aktibo bilakatzea, bai UPV/EHU, bai ingurunean, esperientzia arrakastatsuen hedapenaren eta transferentziaren bidez.</li> </ul>

**ERRONKA**

**Unibertsitatea erakunde jasangarria eta sozialki konprometitua izan dadin lortzea, bere ingurunean erreferentzia gisa balio dezan**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Politika berritzaileak garatzea, sormenezko irtenbide eraginkorrak eskainiko dituen unibertsitate jasangarri bat garatzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorkizuneko UPV/EHUko Plan Estrategikoan eta diseinatuko diren plan sektorialetan jasangarritasunaren ikuspegi integratzailea sartzea.</li> <li>• Unibertsitateko talde guztien (AZP, irakasle eta ikertzaileak, eta ikasleak) arteko lankidetzaren sustatzea, unibertsitatearen jasangarritasun arazoak konpontzeko.</li> <li>• Gaurdaino garatutako ekimenak (teknikoak, irakaskuntzakoak, kudeaketakoak eta ikerketakoak) elkarri lotzea eta campus jasangarriaren ideien inguruan egituratzea.</li> </ul>
<p><b>Unibertsitateko jasangarritasunaren kudeaketan aurrera egitea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastegiek zerbitzu kartak eta konpromiso dokumentuak egiten dituztenean jasangarritasunarekiko konpromiso zehatzak jaso ditzaten eskatzea.</li> <li>• Jasangarritasunari buruzko hobekuntza programa bat abian jartzea administrazio eta zerbitzuetako langileentzat.</li> <li>• Energia kontsumoa % 30 txikitzea, UPV/EHUko gutxienez 10 ikastegiren monitorizazio energetikoaren bidez.</li> <li>• Era esplizituan garapen jasangarriaren parametroen baitan lan egiten duten elkarte, enpresa, erakunde publiko eta pribatuekin lehenetsuneko harremanak izatea.</li> </ul>
<p><b>Jasangarritasunerako, berdintasunerako eta garapenerako hezkuntza sustatzea, horiek unibertsitate curriculumean txertatuz.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jasangarritasunarekiko konpromisoa UPV/EHUko ikasle guztiek garatu beharreko gaitasun komuntzat definitzea.</li> <li>• Jasangarritasunerako hezkuntza graduako zein graduondoko curriculumean txertatuko duten berrikuntza proiektuak sustatzea.</li> <li>• EHU Campus Bizia Lab proiektua unibertsitateko gradu guztietara zabaltzea.</li> </ul>

**ERRONKA**

**Unibertsitateak garapenerako lankidetzarekin eta bakearen zein bizikidetzaren kulturarekin hartua duen konpromisoa indartzea**

<b>HELBURUAK</b>	<b>EKINTZAK</b>
<b>Bake eta bizikidetzaren kultura sustatzea.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• ehuGune topagunearen funtzio dinamizatzailea sustatzea.</li><li>• Unibertsitateko ikasleek giza eskubideei begira duten konpromisoa sustatzea.</li><li>• Giza eskubideen azterketarekin, ikerketaren eta hedapen sozialarekin zerikusia duten jarduerak sustatzea.</li></ul>
<b>Garapenerako lankidetzaren arloko prestakuntza egiten den lana finkatzea.</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Practicum eta kanpoko praktikak elkartasunezko ekimenetan eta garapenerako lankidetzako ekimenetan egitea bultzatzea.</li><li>• Garapenerako lankidetzaren arloan diharduten elkarteekiko elkarlana ezagutzera ematea .</li><li>• Ikasleek gizarteko boluntariotzako ekimenetan parte har dezaten sustatzea.</li></ul>

# GOBERNU ONA

## SUSTATZEN DUEN UNIBERTSITATEA:

*unibertsitate hurbilekoa eta adeitsua, gobernu partizipatiboa, eraginkorra eta gardena duena*

### ERRONKA

Administrazio kudeaketa arinagoa, hurbilekoagoa eta gardenagoa sustatzea

HELBURUAK	EKINTZAK
E-administrazioa garatzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kudeaketa prozedurak definitzen amaitzea.</li><li>• Prozedura elektronikoko berri, arin eta errazak ezartzea.</li><li>• Leihatila bakarra ezartzea, erabiltzaileek bertan egin ahal izateko unibertsitateko izapide guztiak.</li></ul>
Unibertsitateko jardueretan gardentasun maila hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Konpromisoa eta Gardentasuna Fundazioak ezarritako irizpideak betetzen dituen gardentasun atari bat abian jartzea.</li><li>• Egungo ehutaula ordeztuko duen ohol elektronikoen sistema garatzea, nahitaezko harpidetza eta aukerako harpidetza izango dituzten oholak ezarriz.</li><li>• Aldizkari Ofizial Elektronikoa ezartzea, non unibertsitateko organoen hitzarmenak eta erabakiak argitaratuko diren.</li></ul>
Unibertsitateko egiturak egokitzea eta haien kudeaketa hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ikastegi berriekin konpromiso dokumentu bat adostea eta kudeatzea.</li><li>• Sailen berrantolaketa amaitzea, tartean dauden eragileekin lankidetzan.</li><li>• Beste unibertsitate egitura batzuen (institutuak, katedrak...) funtzioa aztertzea eta haien jarduera ebaluatzeke prozedura bat ezartzea.</li></ul>

**ERRONKA**

**Gastuaren eraginkortasuna eta eragingarritasuna hobetzea**

HELBURUAK	EKINTZAK
<p><b>Kontabilitate Analitikoko Sistema martxan jartzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 2017ko ekitaldian zehar UPV/EHUko Kontabilitate Analitikoko Sistema martxan jartzea.</li> <li>• Baliabideak berriro esleitzea, kontabilitate analitikoaren ezarpenetik eratorritako eragingarritasuneko, ekitateko eta optimizazioko irizpideak erabiliz.</li> <li>• Gastu unitateen eta garatutako jardueren kostuei buruzko informazioa ematea.</li> </ul>
<p><b>Barneko eta kanpoko kontrol mekanismoak indartzea, kudeaketa eragingarria eta arduratsua lortzeko.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sistemak eguneratzea, ekonomia eta ikerketa kontrol, eragingarritasun eta arintasun handiagoz kudeatzeko.</li> <li>• Gastua arrazionalizatzea eta baliabideak optimizatzea, gastu arruntak doi daitezen eta zerbitzu jakin batzuen defizita murriztu dadin, betiere unibertsitateko kideen eskubideak errespetatuz eta zerbitzuen kalitateari eutsiz.</li> <li>• UPV/EHUko gobernu eta ordezkari organoetako ordezkariak unibertsitateko kideei euren jardunari buruzko kontuak eman diezazkieten sustatzeko ekimenak garatzea.</li> </ul>
<p><b>Kudeaketa ekonomiko gardena egitea, erraza eta ulergarria.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Informazio argia, eguneratua eta eskuragarria argitaratzea, kontuak emateko eta gobernu ekintzak justifikatzeko.</li> <li>• Eskatutako dokumentazioa lortzen dela bermatzea, muga bakarrak izanik legeak berriaz ezartzen dituenak datu babestuetarako.</li> <li>• Gobernu organoei informazio zehatza eta bereizia ematea unitate gastuetako gastuei, sarrerei eta eragiketei buruz, eta emaitzen kontu ematea, politika eragingarriagoak eta zorrotzagoak definitzeko.</li> </ul>

**ERRONKA**

**UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartzea**

<b>HELBURUAK</b>	<b>EKINTZAK</b>
<p><b>Irakasle eta ikertzaile, AZP eta ikasleen arteko komunikazioa eta harremana erraztuko duen giroa sortzea erakundearen.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Unibertsitatearen webgune berria diseinatzen amaitzea eta hura implementatzea: extranet eta intranet.</li> <li>• Sare sozialen erabilera bultzatzea.</li> <li>• Komunikazio euskarri guztiak indartzea (Campusa, Adituak...) eta unibertsitatearen ekimen garrantzitsuak ezagutzera emateko komunikazio estrategia berriak diseinatzea.</li> </ul>
<p><b>Unibertsitateko talde guztiak gobernantzako estrategietan partaidetza handiagoa izatearen aldeko apustua egitea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• UPV/EHUren gobernantza estrategien berri emateko mekanismoak ezartzea.</li> <li>• Administrazioko unitateen arteko koordinazio ekintzak abian jartzea.</li> <li>• Talde guztiak gobernantzako estrategietan parte har dezaten bultzatzea.</li> </ul>
<p><b>Ehualumni proiektua sustatzea.</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Prestakuntza Eskolaren bidez ehualumni taldearen enplegarritasuna hobetuko duten jardueren katalogo erakargarria diseinatzea.</li> <li>• Mentoring, Enbaxadorea eta Cicerone programak finkatzea.</li> <li>• Unibertsitate barruan eta gizartean ehualumni proiektua sustatzea, erregistro eta kolaborazio berriak erakarriz.</li> </ul>

